

BILBAO EKINTZA EPEL

IRAGARKIA

Bilbao Ekintza EPELen hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuaren bigarren ariketaren behin-betiko kalifikazioa.

Enpresa sustapeneko teknikari izateko lanpostu 1 betetzeko hautaketa-prozesua epaitzeaz arduratu den epaimahaiak honako hau xedatu du azaroaren 30ean egindako bileran:

Lehenengoa.- Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta hauek aztertu ondoren, emandako kalifikazioak berretsi eta behin betikotzat jotzen dira.

Bigarrena.- Oposizioaren **BIGARREN ARIKETAN GAI** izan diren izangaiek lortutako **behin-betiko kalifikazioa** onestea eta jendaurrean jartzea, deialdiaren oinarrietan jaso den ariketan proba gainditu dutelako. Zerrenda iragarki honi erantsi zaio, eta baztertu egin dira egindako proban **EZ GAI** diren pertsonak.

Hirugarrena.- Bigarren ariketako behin-betiko kalifikazioan **GAI** suertatu diren pertsonen **dei egiten** zaie oposizio-faseko **hirugarren ariketa (gaitasunen ariketa) egin** dezaten. Ariketa hori nahitaezkoa eta ez baztertzaila izango da, jarraian adierazten den egunean, orduan eta lekuan, **NANA** aurkeztu beharko dute, baita idazteko tresnak ere (2 zenbakiko arkatz biguna, borragoma eta zorrozkiola).

Eguna: **2023ko abenduaren 13a**

Ordua: **8:45**


Lekua: **Turismo Bulegoa** (beheko solairua), Plaza Circular 1, 48001 Bilbo, ate nagusiko sarbidetik.

Laugarrena.- Bigarren ariketako behin-betiko kalifikazioan GAI deklaratu diren izangaiei **jakinarazten zaie** hirugarren ariketaren edukia eta zuzentzeko irizpideak (gaitasunen ariketa) honako hauek izango direla:

- a) Hirugarren ariketa hau nahitaezkoa da, eta ez baztertzaila.
- b) Laneko gaitasunen inguruko test bat egin beharko da.
- c) Gehienez 10 puntu emango dira, eta ez da beharrezkoa izango gutxieneko bat lortzea gainditzeko **(ez da baztertzaila)**.
- d) Testaren bidez, honako faktore hauek ebaluatuko dira lan-eremuan (arloan bakoitzari emango zaion puntuazioa honako hau izango da):
 - **Pertsona barruko arloa: 2 puntu.**
 - **Pertsonen arteko arloa: 2 puntu.**
 - **Zereginen garapen-arloa: 2 puntu.**
 - **Ingurunearen arloa: 2 puntu.**
 - **Gerentzia arloa: 2 puntu.**
- e) Ariketa egiteko, izangaiek NANA eta idazteko tresnak (2 zenbakiko arkatz biguna, borragoma eta zorrozkiola) aurkeztu beharko dituzte.

Bosgarrena. – Ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbao Ekintzako lehendakariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 121. eta 123. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bilbon, 2023ko azaroaren 30a



EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
JOSÉ IGNACIO RISUEÑO SERRANO

Bigarren ariketaren behin-betiko kalifikazioak**BE2019-0001
ENPRESA SUSTAPENeko TEKNIKARIA
TÉCNICO/A DE PROMOCIÓN EMPRESARIAL**

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Guztira Total	
*89***39	ECHEVARRIA	BILBAO	IMANOL	16,70	GAI
*891***6	GARCÍA	GARCÍA	ITZIAR	10,85	EZ GAI
*065***5	HORMAECHE	GOROSTIZA	TERESA	19,55	GAI